

# JOSEBA SARRIONANDIAREN *LAGUN IZOZTUA* ELEBERRIKO HIRU ITSASOAK: IRAKURKETA PROPOSAMEN BAT

**Tesiaren egilea:** Eider Rodriguez Martin

**Unibertsitatea:** Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

**Saila:** Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak

**Tesi-zuzendaria:** Iñaki Aldekoa Beitia

**Tesiaren laburpena:**

Tesi honen helburu nagusia, itsas irudiak gabitazio-gune nagusi hartuta, Joseba Sarrionandiaren *Lagun izoztua* (2001) eleberraren irakurketa-proposamen bat egitea izan da, Harreraren Teoriaren ikuspegia ardatz harturik.

Horretarako, batetik, *Lagun izotua* argitaratu aurreko poesiazko eta prosazko lanetan (1981-2001) agertu itsas irudiak interpretatu ditugu eta itsas irudi horiek obraz obra izandako bilakaerari jarraitu diogu. Bestetik, esanahaiz kargaturik heldu diren itsas irudi horiek *Lagun izoztua*-n betetzen duten funtzioa aztertu dugu, *Lagun izoztua*-ren ageriko irakurketaz gain, ezkutuan dagoen irakurketa berri eta koherente bat proposatuz.

Horrela, ikusi ahal izan dugu Sarrionandiaren lehen liburua den *Izuen gordelekuetan barrena*-ko (1981) itsas irudiak eta *Lagun izoztua*-koak maiz berberak izanagatik esanahi ezberdinak gordetzen dituztela: hastapeneko itsaso bizi, harro, transgresore, abenturazko eta kosmopolita itsaso izoztu, mortu eta zientifiko bilakatuz joan da, lanetan eta urteetan aurrera egin ahala, eta giza arrastorik apenas duen itsaso horrek gailurra erdiesten du *Lagun izoztua*-ko Antartikako planoan. Izan ere, liburuz liburu bilbatutako itsas irudien sarerik gabe ezinezkoa litzaiguke *Lagun izoztua*-ren irakurketa-proposamen berririk egitea; areago, *Lagun izoztua*-ren irakurketa-proposamen bat egitea posible eta pertinentea bada, egileak aurreko lanetan ere itsas irudien bitartez lengoaiaren mugak zabaltzeko eginahala egin duelako da.

Sarrionandiaren lanetan, itsasoa ez baita baliabide koloretsu huts bat, ez eta *atrezzo* lanak betetzen dituen paisaia batzuetan basati, beste batzuetan etsipe-nezko bat, haren obren muin-muinean txertaturik dagoen batzuetan metafora beste batzuetan sinbolo esanahiz kargaturikoa baizik. Itsasoaren esanahi ez literal hauek errealitate politikoaz gogoeta egiteko ez ezik, irakurleari errealitate politikoaz gogoeta eginarazteko dialogo paralelo bat ere osatzen dute, errealite horretaz lengoaiaren kutsaduretatik aparte jarduteko modu libreago bat.

